

2025eko IRAILAREN 25ean ARGITARATURIKO, "2025eko IRAILA - ABENDUA ALDIRAKO EHU-KO INTERNATIONAL WELCOME CENTRE-KO BIDEO BITAKORA LEHIAKETAN" PARTE HARTZEKO EPEA LUZATZEKO, 2025eko ABENDUAREN 1eko EBAZPENA, TRANSFERENTZIA ETA NAZIOARTEKOTZE ERREKTOREORDEARENA

2025eko irailaren 25ean, Erasmus+, Latinoamerika, Beste norakoak eta SICUE programetako graduako eta masterreko trukeko ikasle bisitariei zuzenduriko, "2025eko iraila - abendua aldirako "Bideo Bitakora Lehiaketaren" oinarriak onartu zituen, Transferentzia eta Nazioartekotze errektoreordearen ebazpena argitaratu zen.

Oinarrien 4.6 atalaren arabera, 2025eko abenduaren 1a da eskabideak aurkezteko azken eguna.

6 sari aurreikusi direnez, bi campus bakoitzean, eta nahikoa eskaera jaso ez denez, lehiaketan parte hartzeko eskabideak aurkezteko aurreikusitako epea luzatzea komenigarria dela uste da.

Hori dela eta, Transferentzia eta Nazioartekotze errektoreordeak, *"Gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteari eta eskumenak eskuordetzeari buruz EHUKo errektoreak 2025eko urtarrilaren 27an onartutako Ebazpenaren"* arabera eskuordeturik dituen eskumenak erabiliz,

HONAKOA EBATZI DU:

LEHENENGOA.- 2025eko irailaren 1ean argitaraturiko, Erasmus+, Latinoamerika, Beste norakoak eta SICUE programetako graduako eta masterreko trukeko ikasle bisitariei zuzendutako, 2025eko iraila - abendua aldirako "Bideo Bitakora Lehiaketaren" oinarrien 3.6 atala aldatzea.

4.6 atalaren oraingo edukia honako hau da:

"4.6. Honako hauek dira aurrez ikusitako epeak:

- a. Lanak bidaltzea: 2025eko azaroaren 17tik abenduaren 1era.*
- b. Ebazpena: 2025eko abenduak 15*

Ez da epez kanpo bidalitako lanik onartuko."

Ebazpen honen indarrez, lehiaketaren oinarrietako 4.6 atal hori honako hau izango da:

"4.6. Honako hauek dira aurrez ikusitako epeak:

- a. Lanak bidaltzea: 2025eko azaroaren 17tik **2026ko urtarrilaren 8ra.***
- b. Ebazpena: **2026ko urtarrilak 23.***

Ez da epez kanpo bidalitako lanik onartuko."

Eranskin honetan oinarri berriak atxikitzen dira.

BIGARRENA.-Ebazpen hau eta haren eranskina argitaratu eta zabaltzea.

HIRUGARRENA.- Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta horren aurrakako administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke dagozkion administrazioarekiko auzien epaitegietan, 2 hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera. Hala ere, aukerako berraztertze errekurtsua aurkez daiteke ebazpena eman duen organo berean, hilabeteko epean, egintza espresua bada, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluek xedatutakoa betez.

Leioan, 2025eko abenduak 1.

Miren Gotzone Barandika Argoitia

Transferentzia eta Nazioartekotze errektoreordea

ERANSKINA

EHUKO INTERNATIONAL WELCOME CENTREKO BIDEO BITAKORA LEHIAKETAREN OINARRIAK (2025EKO IRAILA-ABENDUA)

LEHENENGOA.- DEIALDIAREN HELBURUA

Deialdi honen helburua da Erasmus+, Latinoamerika, Beste norakoak eta SICUE programetako graduako eta masterreko trukeko ikasle bisitariek 2025eko irailetik abendura bitarte EHUn dituzten esperientziak bistaratuko dituen ekimena antolatzea. Horretarako, jarraian jasota dauden baldintzen arabera, bitakora bideoen lehiaketa antolatu du.

BIGARRENA.- PARTE HARTZAILEAK

Lehiaketa honetan 2025-2026ko ikasturteko lehen lauhilekoan edo 2025-2026ko ikasturte akademiko osoan egonaldia EHUn egiten ari diren Erasmus+, Latinoamerika, Beste norakoak eta SICUE programetako graduako eta masterreko trukeko ikasle bisitariek har dezakete parte.

HIRUGARRENA.- BITAKORA BIDEOA

Interesa dutenek honako ezaugarri hauek dituzten bideoak aurkeztu ahal izango dituzte lehiaketara:

- Bideoan, EHUKo mugikortasun egonaldiko esperientzia kontatuko da, bitakora bideo baten bidez, ikuspuntu akademiko eta pertsonala jasoz.
- Parte hartzaileek beraiek sortu behar dute edukia, eta ezingo dituzte erabili baimendu gabeko beste bideo batzuen zatiak.
- Bitakora Bideoak egitura argia izan beharko du (hasiera, garapena eta amaiera), nahiz eta laburra izan.
- Bideoaren iraupena gutxienez 1 minutukoa izango da, eta ezingo du 3 minutu baino luzeagoa izan.
- Bideoa egileak hautatutako hizkuntzan graba daiteke, eta ingelesezko azpтитuluak izan behar ditu (ingelesez grabatutakoa denean izan ezik).
- Bideoak horizontalean grabatu eta MP4 edo MOV formatuan entregatu beharko dira.
- Kontuan hartuko diren sorkuntzako alderdiak:
 - o Estilo bisuala: baliabide bisualak erabiltzea (eduki grafikoak edo animazioak, adibidez).
 - o Edizioa eta trantsizioak: ez da beharrezkoa izango editatzeko software aurreratua erabiltzea; hala ere, kontuan hartuko dira oinarritzko edizioaren kalitatea eta trantsizioak, eta bideoaren erritmoari eta erakargarritasunari egiten dioten ekarpena.
 - o Musika eta jabetza eskubideak: musika erabiliz gero, copyrightik gabea izan beharko du, edo espresuki baimenduta egon beharko du.

LAUGARRENA.- GAINERAKO PREMISAK

4.1. Partaide bakoitzak **bideo bakarra** aurkeztu ahal izango du.

4.2. **Ez da onartuko plagiatutako lanik.** Lanak originala izan behar du, eta ezin izango dira aldeztu aurretik web plataformetan edo komunikabideetan argitaratutako lanak aurkeztu. Beste lehiaketa batzuetan saritutako lanak ere ezingo dira aurkeztu.

4.3. **Bideoaren edukia ikasleak EHU-n egindako egonaldian grabatu beharko da,** eta egilearen esperientzia akademikoa eta pertsonala jaso beharko ditu.

4.4. Ez dira onartuko **adimen artifizialeko** tresnen bidez oso-osorik egindako lanak.

4.5. **Lehiaketatik kanpo geratuko dira** eduki bortitzak, lizunak, sexistak, homofoboak edo arrazistak dituzten bideoak eta grafikoak, edozein kolektiborekiko diskriminatzaileak direnak edo pertsonen duintasuna eta oinarritzko eskubideak urratzen dituztenak.

Balorazio Batzordeak lehiaketaren gaiarekin bat ez datozen, ezarritako formatuekin bat ez datozen edo oinarri hauetan adierazitako baldintzak betetzen ez dituzten bideo eta grafikoak baztertu ahal izango ditu. Baztertutako bideoek ez dute puntuaziorik jasoko.

4.6. Honako hauek dira aurrez ikusitako epeak:

- a. Lanak bidaltzea: 2025eko azaroaren 17tik 2026ko urtarrilaren 8ra.
- b. Ebazpena: 2026ko urtarrilak 23.

Ez da epe kanpo bidalitako lanik onartuko.

4.7. Bideoak **formulario** honen bidez bidali beharko dira, eta wetransfer-etik zuzenean deskargatzeko esteka erantsi beharko da.

FORMULARIOA

4.8. Jasotako bideoak **baloratzeko Balorazio Batzordea** eratuko da eta honako hauek osatuko dute:

- c. European Student Network (ESN) sareko kide batek (presidentek izendatuko du).
- d. Unibertsitateko ikus-entzunezkoetako aditu batek (EHUko Komunikazio Bulegoko zuzendariak izendatuko du).
- e. Transferentzia eta nazioartekotze Errektoreordetzako Nazioartekotze zuzendariak.
- f. International Welcome Centreko arduradunak (idazkari lanak egingo ditu).

4.9. Balorazio Batzordeak kontuan hartuko dituen **irizpideak** honako hauek izango dira:

- Koherentzia deialdiaren helburuarekiko: % 35
- Mezuaren kalitatea eta hizkuntzaren erabilera: % 25
- Originaltasuna: % 20
- Sormena, diseinua eta alderdi teknikoa: % 20

Epaimahaiaren balorazioa behin betikoa izango da, akta batean jasoko da eta Transferentzia eta Nazioartekotze Errektoreordetzara bidaliko da, ondoren ofizializatu eta ebazpen bidez argitara dadin.

4.10. Honako hauek izango dira **sariak**:

-Lehenengo saria, bana Campus bakoitzeko: 300 €

-Bigarren saria, bana Campus bakoitzeko: 200 €

Sariak banku eramaile-txeke bidez banatuko dira.

BOSGARRENA.- EHUk BITAKORA BIDEOA ERABILTZEA

EHUren Nazioarteko Harremanetarako Bulegoak eta haren International Welcome Centrek ikasleen mugikortasuna sustatzeko erabili ahal izango dituzte bideoak egiten dituen kanpainetan eta difusio kanalen bidez. Horren barruan egongo dira EHUren webgunea www.ehu.eus eta sare sozialak www.instagram.com/ehu.international

Era berean, bideoak nazioarteko trukeko ikasleei ongietorria emateko eta agur esateko ekitaldietan erakutsi ahal izango dira.

Bideoak erabiltzen diren bakoitzean, egilearen berri emango da dagokion euskarrian.

EHUk ez du baimen osagarririk eskatu beharko parte hartzaileen bideoak goian aipatutako erabileretarako erabili ahal izateko.

SEIGARRENA.- INFORMAZIOA ESKATZEKO KONTAKTUA

Zalantzaren bat izan edo informazio gehiago behar izanez gero, interesa duten pertsonak International Welcome Centrerekin harremanetan jartzeko aukera izango dute posta elektronikoz edo telefonoz.

E-maila: info.welcomecentre@ehu.eus

Telefonoa: 94 601 5868